

BAKARDADEA ETA ALAITASUNA



Itzul egin nuben, bein,
 Echetik kanpora,
 Penaturik nijuan
 Menditikan gora;
 Naiko gauza etorri
 Zaizkit bai gogora...
 ¿Noiz joango naiz berriro
 Aitaren ondora?

Mendiya nubenian
 Goitik azpiratu
 Gosia nere barrenan
 Zan chit menderatu:
 Eskuakin belarra
 Anchen nuben moztu,
 Nai banuben gosia
 Gero arte aztu.

Ez nuben baserririk
 Iñon, ez, billatzen
 Ez ere, lore usaya
 Iñondik aditzen.
 Nere biotza dago
 Guztizko mintzatzen...
 Orainchen det echol bat
 Urruti ikusten.

Echolara irichi
 Naiz ni, chit pozturik;
 Ez nion aterikan
 Billatu iñondik;
 Malkoz nere begiyak
 Orduban beterik,
 Choraturikan sartu
 Nitzan chiminitik.

Onera sartu eta
 ¿Nik, zer egin det, nik?
 Orain berriz janari
 Ez daukat belarrik...
 Gozatzen naiz choriya
 Kantari aiturik,
 Baña onek ere laga
 Nau triste, bakarrik.

Bakardadea ona da
 Gosia chit charra:
 Bere bizikua zan
 Bai, nere negarra.
 Añ aundiya zan nere
 Negarren indarra
 Malkoak legortzeko
 An, bat, zan biarra.

Begiyak lurrera ta
 Neroni isillik,
 Negoan errezatzen
 Bakarrik!... Bakarrik!...
 ¿Zerbait azaldu zait nei
 Zeru urdiñetik?...
 Bai...izarbat... ara nun dan
 Lañuan chinchillik.

Berak dizkit malkoak
 Polliki legortu,
 Eta nere negarra
 Biyotzian urtu.
 Orduban guztiz nitzan
 Osoro alaitu
 ¿Ta zer zan?... ¡nere echola
 Elizan biyurtu!...

Soiñdona jantzi eta
 Emen naidet bizi
 ¡Jesus-ek! diralako
 Ori erakutsi.
 Emen geran denboran
 Donedean azi
 ¡Zeruban izateko
 Jaunarekin beti!

RAMON INZAGARAY-K.

